

# Altzako

# jaiak

## San Martzialak

Uztailak 2, igandea

### BASERRITARREN EGUNA

**9.00etan:** Saskibaloia, eskubaloia eta futbol txapelketa finalak *San Jose de Calasanz ikastetxean.*

Deman parte hartuko duten **idiak pisatuko dira.**

**10.00etan:** Meza Nagusia *San Martzial elizan.*

**10.45etan:** V. Sagardogileen lehiaketa *Udal Pilotalekuan.*

**12.00etan:** **Idi dema 2.000 kiloko harriarekin.** Parte hartzaileak: *Zamalbidetako Illarreta, Frantxilla Berriko Loinaz, Oiartzungo Sarasola eta Lasarteko Telleria.*

**13.30etan:** Bertsolariak Alkateordetzako balkoitik: *Peñagarikano eta Sorozabal.* Gai-jartzailea: *Luis Mari Ralla.*




### Ignacio Arias

*(Herri-Zahar Elkarteak)*

Altzatar guztiok jai hauek gureak direla argi izan beharko genuke. Jaien antolaketa eta parte hartzean zer esan zuzena beharko genuke izan. Dena den, Irungo San Martzial jaiak hartu duten ospea kontutuan izanik, ez legoke gaizki Altzako danborradetan alarde txiki bat egotea eta Altzako danborradek ezaugarri berezi bat hartzea.

**14.30etan:** Anaitasun bazkaria *Altzatarra K.E.an.*

**17.30etan:** «Altza» dantza Taldearen emanaldia *San Jose de Calasanz ikastetxean.*



### Jose Luis Márquez

Jai egitarauaz nahikoa «paso» egiten dugu gazteok. Guretzat garrantzitsuena ondo pasatzea da eta horretarako ez diogu kaso gehiegirik egiten egitarauari. Tabernetako ordutegiei jaramon gehiago egiten diegu.

Gazte jendea gauaz kezkatzen da eta taberna barruan aurkitzen da normalean giroa. Hala ere, Altzako gazteak bertan gertatzen gara normalean San Martzial jaian.

### Igandean, hilak 2,

Sagardogileen V. Lehiaketa. Santaixabel egunean ospatzen da, Alzatarra Kirol Elkarteak antolatuta, eta inguruko sagardogile onenek hartzen dute parte. Aurtengoan honako sagardotegiak aurkitu ditugu: Martuteneko Barkaiztegi, Astigarragako Buenaventura, Gartziategi, Lizeaga, Petritegi eta Zabalegi eta Hernaniko Altzueta, Eizmendi eta Otsua Ene. Probaketa egin eta erabakia hartu ondoren, saria eman-go zaio irabazleari.

GURE gomendioa



- Elekrika Blend Sistema
- Makilaia Iraunkorra
- Azkazal Labratuak
- Berilena Tindaketa...

Zedro plaza 2 • DONOSTIA • Tfnoa.: 392051  
Nagusia 27 • LASARTE • Tfnoa.: 371891

LORADENDA

*Lorea*

Arrizar 14, - Tfnoa.: 35 79 39

## Donostian nago

PASAPORTEA

**Izen-abizenak:** Casmhán ó Scoláí eta Seán ó Néill.

**Herriak:** An Spidéal eta Indreabhán, Hego Irlandan.



## «Bertsolaritzak harritu gaitu batez ere»

**Zenbat denbora igaroko duzue Donostian?**

Aste betetxo bakarrik.

**Zer dela eta etorri zarete?**

Donostiako neska batzuk ezagutu genituen Irlandan oporretan zebiltzala, eta haiengana etorri gara, beraien etxean gaude.

**Zer da orain arte gehien gustatu zaizuena?**

Araba Euskaraz festan egon ginen, eta benetan interesgarria izan zen. Han ikusitako euskal kirolak eta bertsolariak asko gustatu zitzaizkigun. Irlandan ere badago bertsolarien antzeko zerbait, baina bi lagunnen artean bakarrik egiten dena.

**Eta zer da gutxien gustatu zaizuena?**

Eguzkia. Itzalean jarri

arren oinak erre egin zitzaizkigun.

**Irlandan gaelikoa hitzegiten duzue. Donostian sentitu al duzue kalean euskara hitzegin dela?**

Irlandan nekazal giroan bakarrik hitzegiten da bertako hizkuntza, eta hemen berriz kalean ere somatu dugu. Gazte jendeak ere hitzegiten du... egia esan uste genuen hiri handi batean ez zela hitzegino euskararik. Egia da ere Donostian egin ditugun lagunak euskaldunak zirela.

**Zer eramango duzue Irlandara?**

Patxarana eta Askape-nak ateratako Irlandari buruzko kamisetak.



Itzaletik

## Hondarrezko Gazteluak

**T** laz 173 lapurreta denuntzia jaso zituzten udaltzainek hondartza eta inguruko pasealekuetan. Aurten, hilabete txarrenak iristeke, dagoneko dozena batetik gora jaso dituzte.

**T** Lerrook idazterakoan, 1.095tik gora lagun ziren badiako itsas-kiroletan izena emandakoak. Martxa honetan aisa gaudituko da iazko 2.496 kirolarien kopurua.

**T** Zurriolako hondartzako korrente arriskutsuak direla eta, bat baino gehiago dira, toaila Sagues inguruan utzita ere, espigoi berriaren ingurura abiatzen direnak bainua hartzeko; horixe baita, izan ere, zonarik lasaiena.

## Hau sargoria!



**Hontza**  
LIBURUDENDA

OKENDO KALEA 4 - Tfnoa.: 42 82 89 DONOSTIA



**Aurreko asteburutik** hasiak dira altzarrak beren San Martzialak ospatzen. Ekintza ugari izan ziren, besteak beste, sardin jate izugarria igande arratsaldean. Jende ugari hurbildu zen lagunarteko merienda egitera.

GURE gomendioa

## Larunbatean, hilak 1,

Haur eta jubilatuen eguna dela gogorarazi nahi dizuegu. Beraz, auzoko txikienentzat eta nagusienentzat ez da festarik faltako.


Haurrek krossa eta jokoak izango dituzte egunean zehar eta zaharrek berriz, toka txapelketa, merienda eta baltzeoa.

**18.00etan:** **Idi dema.** Goizean parte hartu ez duten beste bi bikoteen txanda.

**19.15etan:** **Alkateordetzan,** goizean aritutako **bertsolariak.**

**23.00etan:** **Baltzeoa Basakabi** taldearekin **Udal Pilotalekuan.**

**24.00etan:** **Zezen suzkoa San Martzial plazan.**



## Carmen Gordillo

Jaietako egitarauak 40-70 urte bitarteko pertsonak baztertzen ditu. Edo gazteei zuzendutako kontzertuetan parte hartzen dugu edo toka eta bolo txapelketak eskaintzen dizkigute. Egia esan San Martzial jai hauek ez dira Altzan behar bezala ospatzen. Nobedade bezala proposamen bat egitea gustatuko litzaidake, hain zuzen, Altzak beste herri asko bezala, bereizkuntza gastronomiko bat asma dezala jai hauetarako.


**Goizalde**  
Kafetegia • Gozotegia

Altza pasealekua 55 (Plaza Gorria)

*Mompak*

**Ingurapena :**  
Olio-Akuarelak,  
Laminak-Posterak,  
Argazkiak

Iparragirre, 15 - Telf : 32 01 57




## ERAKUSKETAK

• «Nafarroako Garaia». San Telmo museoa, ekainaren 30a arte.

• Iñigo Ormazabal margoak. Garibai kaleko Kutxaren Kultur Aretaon, uztailearen 9a arte.

• Margarita Ruiz de Velascoren obrak. Arrasate kaleko Kutxaren Kultur aretoan, uztailearen 16a arte.

• «Akuarela Euskal Abangoardietan» erakusketa ikusgai izango dugu San Telmo museoko Areta Nagusian hilaren 19a arte.



## «Euskal Artea eta Artistak 60.

Hamarkadan» Otsaileko erakusketan EEBBko 60. hamarkadako artea aztertzen bazen orain etxekoa dugu aztergai: Oteiza, Txillida, Ibarrola, Zumeta, Schommer, Ruiz Balardi eta abar luze baten lanak. Koldo Mitxelena Kulturunean uztailearen 7tik irailaren 7a arte.

## OSTIRALA 30

### Antzerkia

• «Ezinezko amodioak» antzeslana eskainiko du «Marinba Kolektiboak» Lugaritz Kultur Etxean 20.00etan. Sarrera 500 pezeta.

### Liburu azoka

• XIX. Donostiako Liburu Azokaren inaugurazioa Boulevard-ean 13.00etan.

## LARUNBATA 1

### Kontzertua

• «Ozenki» abesbatzak kontzertua emango du Igeldoko jaietako egitarauaren barruan 22.00etan.

### Antzerkia

• T.S Antzerki taldearen emanaldia Boulevard-ean Liburu Azokak antolatutako ekintzen barruan. 19.00etan.

## IGANDEA 2

### Kontzertua

• «Udal Txistulari Bandak» kontzertua emango du Antiguako Gaskoina plazan 12.00etan.

### Bertsoak

• Egaña, Lizaso, Telleria eta Murua bertsolariak Igeldoko jaietan eskainiko dute bertsoaia. 20.30etan.

### Antzerkia

• T.S. Antzerki taldearen emanaldia Boulevard-ean Liburu Azokak antolatutako ekintzen barruan. 12.00etan.

## ASTEARTEA 4

### Ikuskizuna

• «Perth Youth Orchestra» eskoziar dantza eta musika taldeak bere ikuskizuna emango du Lugaritz Kultur Etxean 20.30etan.

• «De Oriente a Euskal Herria» ikusentzutekoa ikusteko aukera izango dugu Añorga Kultur Elkartearen 19.30etan.

### Ikastaroa


• «Legitimidad y gobernabilidad en la democracia actual» ikastaroa emango da Andia kaleko Kutxaren aretoan. UEU-ren ikastaroen barnean. Ordua zehazteke.

## ASTEAZKENA 5

### Zinema

• «French Cancan»

## EKAINAREN 5ean



filma ikusteko aukera izango dugu Jean Renoiren zikloaren barruan. Antzoki Zaharrean 20.15etan.

### Ikastaroa

• «Legitimidad y gobernabilidad en la democracia actual» ikastaroa emango da Andia kaleko Kutxaren aretoan. UEU-ren ikastaroen barnean. Ordua zehazteke.

## OSTEGUNA 6

### Ikastaroa

• «Legitimidad y gobernabilidad en la democracia actual» ikastaroa emango da Andia kaleko Kutxaren aretoan. UEU-ren ikastaroen barnean. Ordua zehazteke.